



UNIBASQ EUSKAL UNIBERTSITATE SISTEMAREN KALITATE AGENTZIAREN GOBERNU KONTSEILUAREN 2014ko ABENDUAREN 22ko BILERAREN AKTA

BERTARATUTAKOAK:

Gobernu Kontseiluko kideak:

Cristina Uriarte andrea,
lehendakaria

Itziar Alkorta andrea,
lehendakariordea

Juan Andrés Legarreta jauna,
Agentziaren zuzendaria

Iñaki Goirizelaia jauna, UPV/EHUko
errektorea

José María Guibert jauna, Deustuko
Unibertsitateko errektorea

Iosu Zabala jauna, Mondragon
Unibertsitateko errektorea

Óscar Altuzarra jauna

Aratz Castro jauna

María Paz Espinosa andrea

Carmen González Murua andrea

Guy Haug jauna

Ana Martínez andrea

Eusko Jaurlaritzaren Bilboko Lurralde
Ordezkaritzaren B aretoan (Kale
Nagusia 85), 2014ko abenduaren 22ko
08:30ean bildu da UNIBASQ Euskal
Unibertsitate Sistemaren Kalitate
Agentziaren Gobernu Kontseilua,
Cristina Uriarte andrea buru dela.
Alboan adierazitako jaun-andreak
bertaratu dira, honako gai-zerrenda
honekin:

1. 2014ko azaroaren 17ko aurreko
bilkuraren akta irakurtzea eta, hala
badagokio, onartzea.
2. Lehendakariaren txostena.
3. Zuzendariaren txostena.
4. Unibasqeko hitzarmenak.

BERTARATUTAKO BESTE
BATZUK:

José Manuel Valle jauna

4.1 Hitzarmena Hezkuntza, Kultura
eta Kirol Ministerioarekin
(seiurtekoak ebaluatzeko).

EZIN ETORRIA ADIERAZI
DUTENAK:

Esther Giménez-Salinas andrea

Gregorio Monreal jauna

4.2 Hitzarmena AQUIBekin
(elkarrekiko lankidetzarako).

5. 2014ko aurrekontuaren jarraipena
eta 2015eko aurrekontuaren
aurreikuspena.
6. Etika Batzordearen 2014ko
jarduerei buruzko txostena.

7. Galde-eskeak.

1. PUNTUA. 2014ko azaroaren 17ko aurreko bilkuraren akta irakurtzea, eta, hala badagokio, onartzea.

Onartu egin da aurreko bilkuraren akta.

2. PUNTUA. Lehendakariaren txostena.

Cristina Uriarte andreak Agentziaren jardueraren garapenerako garrantzizkoak diren zenbait gairen berri eman dio Kontseiluari.

3. PUNTUA. Zuzendari jaunaren txostena.

Juan Andrés Legarreta jaunak Agentziaren jarduera garatzeko garrantzitsuak diren zenbait gairen berri eman du.

4. PUNTUA. Unibasqen hitzarmenak

Proposatutako hitzarmenak aurkeztu ditu Andrés Legarreta jaunak (ikus Eranskina):

1. Hitzarmena Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioarekin.

Ministerioak UPV/EHUko irakasle propioen ikerketa-tarteen ebaluazioa ahalbidetzen duten hitzarmenekin jarraitzeko asmoa du. Hitzarmen horiek deialdia BOEn argitaratu aurretik sinatu beharko lirateke, baina Unibertsitate Politikako zuzendari nagusiak aginduta, BOEn argitaratu ondoren sinatuko dira. Agentziari eragingo dion kostuaren zenbatekoa 150 euro da ebaluatutako espediente bakoitzeko.

Kontseiluari hitzarmen-proposamen bat aurkeztu zaio, eta proposamen horretan adierazten da izaera juridikoko aldaketaren bat egin ahal izango dela ondoren, CNEAI desagertzeko eta ANECAn sartzeko prozesuan dagoelako. ANECAk, halaber, bere sorrera-estatusa aldatu du eta orain erakunde publiko bihurtu da.

2. Hitzarmena Balear Uharteetako Unibertsitatearen Kalitate Agentziarekin (AQUIB).

Kontseiluak hitzarmen bat onartu zuen Aragoiko Unibertsitatearen Kalitate eta Prospektiba Agentziarekin (ACPUA). Orain proposatzen da antzeko hitzarmen bat sinatzea Balear Uharteetako Unibertsitatearen Kalitate Agentziarekin.

Hitzarmen horrek, hasiera batean, ez du ondorio ekonomikorik izango. Hitzarmenaren helburua lankidetzaz-esparru bat ematea da, besteak beste, proiektuak elkarrekin garatzeko eta ebaluatzaileak eta batzordeko kideak hautatzen elkarri laguntzeko izango den esparrua, hain zuzen ere.

Aho batez onartu da Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioarekin eta Balear Uharteetako Unibertsitatearen Kalitate Agentziarekin (AQUIB) hitzarmenak sinatzea.

5. PUNTUA. 2014ko Aurrekontuaren jarraipena eta 2015eko aurreikuspena
Kontseiluko kideei dokumentu eguneratua banatu zaie. Bertan 2014ko Likidazio Aurreikuspena eta 2015eko Oinarrizko Aurrekontua (ikus Eranskina) bilduta daude.

2015eko Aurrekontuari dagokionez, Juan Andrés Legarreta jaunak aurrekontua egiteko prozesua Eusko Jaurlaritzarekin batera aurkeztu du, baita jarduera berrien kalkulua eta haien kostua ere.

Eskumen berriak hartzeagatik Unibasqek 2015ean hasi beharko dituen jarduerak direla medio, zuzendariak uste du plantilla handitu egin beharko dela, hau da, teknikari bat eta administrari bat gehiago kontratatu beharko direla; horrez gain, ebaluazio-prozesuei dagozkien partidak eta bestelako partidak areagotu egin beharko dira.

Proposatu da, alde batetik, 2015eko Oinarrizko Aurrekontua –Unibasqen oinarrizko funtzionamendua Aurrekontuen Legean bildutako partidarekin estali beharko duena– onartzea, eta, bestetik, 2015ean kontratu-programa bat –Agentziaren jardura berrietarako behar diren baliabideak bilduko dituen– egitea. Kontseiluak aho batez onartu du.

6. PUNTUA. Etika Batzordearen 2014ko jarduerari buruzko txostena

Juan Andrés Legarreta jaunak José Manuel Valle jaunari eman dio hitza Etika Batzordeak 2014. urteko jarduerari buruzko egindako txostena aurkez dezan.

7. PUNTUA. Galde-eskeak

Kontseiluaren hurrengo bilera 2015eko otsailaren 6an, 16:00etan egitea proposatu da, Bilbon.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez gero, bilkura amaitutzat eman da 11:00etan.